



MAIATZAREN LEHENA

BORROKAN, IRABAZTEKO

2023ko Maiatzaren Lehena
MITXEL LAKUNTZA, ELAko idazkari nagusia

SARRERA

“Borrokan, irabazteko”. Hori da aurtengo Maiatzaren Lehenerako aukeratu dugun leloa. Mezu zuzena, erraz ulertzen dena, egiten ari garena ongi laburtzen duena. Borroka eta lorpenak lotuta daudelako. Hamaika borroka eta hamaika garaipen.

ELAko militanteak Bilboko, Iruñeko eta Baionako kaleetan gaude gaur. Langileen borroka da gaur ospatzera gatozena. Hori da gaur munduko hainbat herri eta hirietan egiten ari garena. Harrotasunez gogoratzea munduko Langile klasearen parte garena.

Zein da gaur Maiatzaren Lehenaren esanahia? Bestelako mundu bat posiblea dela, bestelako gizarte baten alde borrokatu behar dugula egunero. Maiatzaren Lehena elkartasuna da, berdintasuna, natura eta planetaren jasangarritasunaren aldeko borroka, antirrazismoa eta feminismoa, besteak beste. Bakezalea ere bada Maiatzaren Lehena. Bakea aldarrikatzen dugu, bakea eta antimilitarismoa. Azkenengo hamarkadan Europako herrialdeek gastu militarra 30% igo dute, gerraren aurkako ahotsik eta proposamenik ez dagoenean.

Zein da kapitalismoaren bide orria? Desberdintasuna eta pobrezia areagotzea, baliabide naturalak ustiatzea, pertsona, enpresa eta herrialde gutxi batzuen mesedetara jartzea. Merkatuaren askatasuna dela diote. Jende arruntak gero eta arazo gehiago dituenean elikagaiak erosteko edo mailegua ordaintzeko, inoizko etekin handienak lortzen ari dira enpresa energetikoak, banketxeak eta elikagai banatzaileak, esate baterako. Horiek agintzen dute politikan; horien neurrira hartzen dituzte erabakiak gobernuek. Europatik hasi eta Euskal Herriraino etorrira.

Zer esaten diete enpresa horiek gobernuei? Guk aginduko dugu, zuek antzeztu gobernatzeko duzuela. Ez dago neurririk, ez ausardiarik botere ekonomiko horiei mugarik jartzeko. Errealitate hori salatzea, bere gordintasunean kontatzea izan beharko luke gure ustez ezkerrearen estrategiaren abiapuntua.

ZEIN ERREALITATERI EGIN BEHAR DIOGU AURRE?

Langile klasea eguneroko jakiak %15 garestiago ari da ordaintzen, eta hipoteka batez beste urtean 3.600 euro gehiago. Banketxeak, energiako oligopolioak eta elikagai banatzaile handiak, aldiz, etekin historikoak pilatzen ari dira. Aurpegira barre egiten digute, ez daukate lotsarik.

Lotsagabea izan behar da, Galan jauna, konpainia energetikoek eta bankuek izan dituzten gehiegizko irabazien gaineko zergari kargu hartzeko, noiz eta Iberdrolaren etekinak urteko lehen hiru hiletan %40 handitu direla esan duten egun berean. Diru goseak ez dauka mugarik.

Egoera hori dela eta, Europak mezua igorri du: diziplina fiskala berrezarri behar da. Beraz, enpresa handientzat europar funtsak, eta aurrekontu publikoentzat, murrizketak.

Errealitate horren aurrean bi arazo nagusi ditugu: Gobernuek ez dute ezer egiten, eta patronalak blokeoa ezartzen du.

Azter dezagun Estatuko gobernuaren jokabidea. ELAk beti gauza bera egiten du: akordioak eta erabaki politikoak mamiaren arabera ebaluatu. Horregatik, legeak baloratzeko neurria ezin da izan nork babesten duen edo nork ez. Eskuinak eta eskuin muturrak dena kritikatzeko ez du esan nahi aurrera ateratzen diren legeak onak direnik.

Esaterako, hori gertatu da pentsioen erreformarekin. Izan ere, azken erreformak ere murrizketak ekarriko ditu: 50 urte arteko jendearen pentsioa kalkulatzeko urte gehiago hartuko dira aintzat, eta AIREFek zer esana izango du pentsioen gastua mugatzeko. Neurri horiek ez dira onak. Baina ez EAJk, ez EH Bilduk, bietako batek ere ez du aurkako jarrerarik hartu. EAJk aldeko botoa eman du, eta EH Bilduk abstentzioa hautatu du; haatik, argi esan du bere botoak beharrezkoak izan balira alde egingo zuela.

Gaur agenda politikoa areago baldintzatzen dute telebista saio batzuek eta hauteskunde inkestek, ez alderdien programek. Horixe gertatu da 'Soilik baietz da baietz' legearekin: ELAk hasieratik esan zuen testua ona zela, legea mugimendu feministaren garaipen bat izan zela, eta sindikatu honek horri eusten dio. Politika feministak ezin dira eskuinaren menpe jarri, funtsean feminista izateari uzten diotelako.

ZER GERTATZEN DA GASTEIZKO ETA IRUÑEKO GOBERNUUEKIN?

Nork aipa dezake pairatzen ari garen egoerari aurre egiteko neurri seriores bat? Azalpena da gaur Chiviteren eta Urkulluren gobernuak botere ekonomikoen esanetara daudela. Erabaki dute horiek ez molestatzea, neurririk ez hartzea bizimoduaren eta etxebizitzaren garestitzea gelditzeko edota zerbitzu publikoen gainbehera zuzentzeko.

- Chiviteren eta Urkulluren gobernuak erabaki dute iaz ezarrita zuten defizita bera bete gabe bukatzea; ELAk salatu zuen hori bere garaian. Horrela, 2022an 1.000 milioi euro ez gastatzeko erabakia hartu dute.
- Argi dago etxebizitza arazo bat dela, batik bat gazteentzat; hala ere, Hego Euskal Herrian 80.000tik gora etxebizitza hutsik daude. EAEn bizilekuen %2,6 besterik ez da alokairu sozialekoa; Europako azken postuetan gaude.
- Etxebizitza legeak ez du arazoa konponduko. Urrats bat da, noski, baina oso eskasa. Etxebizitzak negozioa izaten jarraituko du; ez da eskubide gisa aitortuko.
- Arazoa ez da eskuduntzen inbasioa; arazoa da EAJren moduko alderdientzat egiten dena, gutxi izanda ere, arazoa dela.
- Urkullu lehendakariak ez ditu jendearen arazorik larrienak aipatzen: Osakidetza, prezioen garestitzea... Ez du nahi garraio publikoa merkeagoa edo doakoa izatea; ez du nahi etxebizitzaren inguruko neurriak hartzeko aukera ematerik.
- Zein da Lehendakariaren benetako kezka? Abiadura Handiko Trena. Horri buruz ELAk behin eta berriz esan du diru publikoa botatzen ari direla, eraikuntzako enpresa batzuen mesedetan; AHTak ez dakar onura sozial, ekonomiko eta ekologikorik.
- Horixe da Lehendakariaren lehentasuna: AHT eraikitzeko badago dirua; ez, ordea, Osakidetzarako edo etxebizitza soziala egiteko.
- Orain, hauteskunde kanpainan, iragarri digute Eusko Jaurlaritzan fiskalitateari buruzko akordio bat daukatela. Hauteskunde ondoren gauzatuko omen da. Hauteskundeetara doaz, baina zer egin nahi duten ez dute aurreratzen. Horrek ez dauka itxura onik.
- Imajina dezakezue EAJren eta PSEren artean erreforma fiskalaz hitz egiteko bilera nola izango den. Halakoak dira aliantza politikoak gurean. Izan ere, funtsean kontua hori baita, mundu ekonomikoaren eta enpresen interesak babestea.

Enpresa handiek EAEn zergetan batez beste %7 ordaintzen dute etekinengatik. Sozietateen zerga bidez bildutako dirua erdira jaitsi da azken urteetan. Osakidetzan, hezkuntzan edo etxebizitzan baliabideak falta direla esaten denean. Horri erreparatu behar diogu: etekinen zati gero eta handiagoa enpresetan geratzen da.

ERREALITATEA IKUSITA, NON DAGO HERRI HONETAKO EZKERRA?

Gure ustez, ezkerak adostasunak bilatzen ditu etengabe, ez konfrontazioa eta egungo politiken aurkako estrategia. ELAk ezkeraren premia somatzen du. ELAk ikusten du gabezia bat dagoela: politikan ez dago eredu sozial alternatiboaren defentsarik. Kezkatuta gaude, moderazio instituzionala baita helburua, adostasunak nabarmentzea, ezkeraren eta eskuinaren artean ezberdintasunik ez balego bezala.

ELAren kezka da ezkerak gurean gero eta eskuinaren antza handiagoa hartzea. Hori ari da gertatzen EAEko eta Nafarroako aurrekontuekin, fiskalitatearekin... Ezkerak bi aukera ditu: egungo politika instituzionalaren muga estuen baitan mugitzea onartu, ala aldaketarako programa baten alde egitea, beste gizarte eredu baten aldeko alternatiba, ekintza instituzionalean agortzen ez dena. Bigarren aukera eginez gero, ezkerak mugimendu sozialekin lankidetzat bilatu beharko luke; babesa eman beharko lioke borrokarako prest dagoen sindikalismoari. Haatik, hipotesi hori baztertu egin dute. Beste arazo bat da patronalak lan hitzarmenen negoziazioa blokeatzen duela; tematuta dago soldatak ez igotzeko jarreraren, hain zuzen emakumeek lan egiten duten sektoreetan.

GOBERNUK EZER EGITEN EZ DUTENEAN ETA PATRONALAK NEGOZIAZIOA BLOKEATZEN DUENEAN, GREBA DA LAN BALDINTZAK HOBETZEKO TRESNARIK ERAGINKORRENA

Horren aurrean zer egiten du ELAk? Behar-beharrezkoa den zerbait: lantoki bakoitzean eta sektore mailan langile klasea antolatu, boterea izan dezan, konfrontaziorako aukera izan dezan.

Zer da konfrontaziorako aukera izatea? Greba egiteko gaitasuna izatea, beharrezkoa izanez gero. ELAk hori egin dezake; patronalek eta gobernuek badakite; gaitasun horrek negoziazio mahaiak baldintzatzen ditu.

Konfrontaziorako hautuak ekartzen ditu lan hitzarmen onak, hau da, soldata igoerak, lan eta bizi baldintza hobekiak. Politikak ezer egiten ez duenean borroka sindikala eta greba dira pobretzearen aurkako biderik egokienak.

Egunotan galdetu digute: **Nola liteke Euskal Herria Estatuko biztanleen %6 izanik greben erdia baino gehiago bertan egitea?** Erantzunaren giltzarria ELA da. Izan ere, greba sindikatu honen estrategiaren muina da; ELA da sindikatu nagusia, eta beste tresna batzuen artean, erresistentzia kutxa dauka.

Herri honetako sindikatu nagusi den aldetik, ELA harro dago greba gehien Euskal Herrian egiten direlako. Harro dago greba eta lorpenen arteko lotura erabatekoa delako. Noski, batzuek manipulatu nahi dute hori, eta esaten dute ELAk greba grebagatik egiten duela. Bada, ez: ELA grebaz harro dago greba delako bitartekorik indartsuena. Sektore eta enpresetan izandako lorpen gehienaren arrazoia delako.

Lorpenik ez litzateke izango konfrontaziorako gaitasunik gabe. Datu ofizialek adierazten dute ELAk sinatzen dituen hitzarmenetan soldata igoera handiagoak jasotzen direla patronalak beste sindikatuarekin sinatzen dituenetan baino.

Estatistika hori argigarria da: Estatuko lurraldeetan, ELA ez dagoen horietan, soldata igoerak ez dira hemengoaren erdira ere iristen.

Datuek honako hau bat islatzen dute: ELA da greba gehien egiten duen euskal sindikatua, horregatik da hitzarmen gehien eta hoberenak sinatzen dituen, urtean 300dik gora (sektore eta enpresetan).

Noski, akordio gehiago eta hobekiak izan zitezkeen ELAren eta LABen arteko ekintza batasuna bagenu. Galdera bat egin daiteke: zein aliantza nahiago du patronalak? ELA eta LABena edo LAB, UGT eta CCOOena? Bigarrena, jakina. Patronalak akordiorik merkeena nahi du, eta badaki hori non dagoen. Hori da gure kezka, hitzarmen okerragoak sinatzea.

ELAk bere autonomiari eutsiko dio, autonomiarik gabe kontrabotererik ezin baita izan. Autonomia eta Erresistentzia Kutzaren moduko tresnak indartzea. Sindikatu batek grebari ekiten dionean ez daki zenbat luza daitekeen; horregatik, gure eginbeharra da ahalik eta hobekien prestatzea.

Greba ez dago zaharkituta, ez da antzinetako kontu bat, batzuek saldu nahi duten bezala. Aitzitik, greba gaur egungo puntako tresna da. Begira, bestela, Europan zer gertatzen ari den: andanaka greba egiten ari dira frantses Estatuan, Portugalen, Alemanian eta Erresuma Batuan. Sindikatuak mobilizatzen ari dira soldata eta pentsioen alde.

Sinetsita gaude konfrontazio eredu sindikala dela modu bakarra pobretze testuinguru horri aurre egiteko.

ELKARRIZKETA SOZIALAK ETA SINDIKALISMOAREN INSTITUZIONALIZAZIOAK EZ DARAMATE INORA

Mahai instituzional guztiak herren daude; horregatik, ez dute emaitza txukunik izaten, eta soilik patronalak nahi duena ateratzen da aurrera; funtsean, konpromisorik ez dakarkion edozer.

Ezin da mahai horietan parte hartu eta, era berean, esan langile klasea antolatzen ari zarela. Sindikatu bat sistema horretako parte bihurtzen denean ez da hain sinesgarria; bere mezua delako mahai horietan gauzak alda daitezkeela.

Sindikalismoak bere lehentasunak ondo aukeratu behar ditu. Sindikalismoa ez bada gauza esateko mahai horiek -Osalanen zein elkarrizketa sozialeko mahaian- hutsalak direla, eta patronal zein gobernuen kontrolpean daudela, jendea nahasten ari da.

GREBEKIN HERRI HOBEA ERATZEN DA: LAN ETA BIZI BALDINTZA HOBEAK DITUEN HERRI BATEAN JUSTIZIA HANDIAGOA ETA BIZIMODUA DUINAGOA DA

ELAk akordio onak lortu ditu azken asteetan. Horietako asko sektore feminizatuetan. Gipuzkoako Ehungintza merkataritzan eta Ostalaritzan. Lorpen handiak ere izan ditugu udal eta enpresetako garbitasun azpikontratetan soldata arrakala desagerrarazteko: Gorniz, Elorrio, Hondarribia, Irun, Irizar, Plaza Bizkaia...

Beste batzuk bidean dira; greban gaude Bizkaiko, Arabako eta Nafarroako zahar-etxeetan, esaterako. Zaintza eremuko sektoreak, non borrokari eutsiko diogun gaur ukatzen zaien aitortza politikoa izan dezaten.

Horregatik erabaki dugu bat egitea mugimendu feministak iragarri duen grebarekin, zaintzarako eskubide unibertsala galdegiteko eta zaintza ez dadin negozioa izan, emakumeen lepotik, horien prekarizazioa eta esplotazioa medio. Aldarrikapen horren alde aspaldian ari gara borrokan.

Hemengo politikari batzuek esan dute grebak herriaren kalterako direla, fama txarra dakartela. Guk kontrakoa diogu: Grebekin herri hobe eratzten da, izan ere, lan eta bizi baldintza hobeak dituen herri batean justizia handiagoa da eta bizimodua duinagoa. Lan horretan dihardu ELAk: "Borrokan, irabazteko".

Euskal Herrian, 2023ko maiatzaren 1ean